



Pôle territorial Errobi
ZA Errobi - CS 40 041
64 250 Itxassou
05 59 93 50 77

Errobi Lurralde eremua
Errobi OE - CS 40 041
64 250 Itxasu
05 59 93 50 77

Proiektu pedagogikoa

2011. urte osoan taldean bildu ginen hilabeteen behin lanean aritzeko, eta lantalde ttipitan ere bildu ginen, hartzaindegiaren proiektu pedagogikoa idazteko.

Bilkura horietan lan-praktikei buruz sakonki trukatu eta gogoetatu du lantaldeak. Praktiken harmonizatzea, helburuak eta funtzionamendu molde eta modalitateen finkatzea zen xedea.

Dokumentu hori kontsultatzeko eta berriz aztertzeko egina da. Bestelakotu daiteke eta aitzinatu bakoitzaren dinamikari esker.

2017ko martxoan berriz ikusi eta aldatu dokumentua.

LAMINAK hartzaindegia
Ibar gaina karrika, 1
64200 Arrangoitze

SARRERA

Laminak haurtzaindegiak 2 talde baditu: ttipiak, eta arteko-handiak. Bakoitzak 12 eta 25 bat haur errezibitzen dituzte.

Ninien taldea horrela osatua da:

- 1 erizain,
- 1 haur-artatzaile laguntzaile,
- 2 langile haur ttipiendako LGA diploma dutenak.

Arteko-handien taldea horrela osatua da:

- 3 haur-artatzaile laguntzaile,
- 3 langile haur ttipiendako LGA diploma dutenak.

Diziplina anitzeko taldeak haur bakoitzaren erritmoari kasu egiten dio, gogoia pizten dio, autonomiara eta sozializaziora buruz laguntzen du.

Bakoitzaren ongizatea zaintzen du lantaldeak eta kalitatezko harrera segurtatzen, haurrei harreman eta afekzio segurtasun giroa segurtatuz.

Erregulariki burasoekin harremanetan da lantaldea, eta haien iradokizunak kontuan hartzen ditu. Horren bidez konfiantzazko harreman bat sortzen da eta haurraren arduraren jarraipena segurtatzen.

Aurkibidea

I. LEHEN HARREMANA HAURTZAINDEGIAREKIN ETA HARREMANAK LANTALDEAREKIN

- a. Izen ematea
- b. Langile erreferentea, bere eginkizuna
- c. Egokitze-aldia

II. EGUNA NOLA IRAGATEN DEN

- a. Goizeko harrera eta arratsean berriz elkartzea
- b. Higiene-artak, ninien aldatzea, garbitasunaren jabekuntza
- c. Apairuak
- d. Loa
- e. Jokoak eta jarduerak

I. LEHEN HARREMANA HAURTZAINDEGIAREKIN ETA HARREMANAK LANTALDEAREKIN

a) Izen ematea

Aitzinetikako izen ematea telefonoz egiten da, e-postaz herriko webgunearen bidez edo hartzaindegian berean. Zuzendariak harrera-galdea erregistratzen du bai eta informazio hauek:

- Familiaren koordinatuak
- Haur ukaitea noizko den
- Hartzaindegira noiz sartuko den
- Nahi diren harrera egunak eta tenoreak

Lekua galdatzen dela baieztatu behar da haurra sortzean.

Harrera-galdea egin ondoan leku bat ukaiten delarik, zuzendariak hitzordu bat ematen dio familiari dossier administratiboa muntatzeko gisan bai eta harrera-moldeak.

Burasoek hartzaindegiaren funtzionamenduaren berri ukanen dute eta egoitza bisitatuko.

Burasoen biziaren berri hartuko du zuzendariak, eta lituzketen zailtasunen berri ere bai. Arreta eskainiko die eta entzunen ditu.

Harrera-egun bat nola iragaten den esplikatu die, eta haien haurraz nola arduratuko diren langile kalifikatuak.

Ahalaz, burasoei lantaldea aurkeztuko die zuzendariak, bai eta egokitze-aldian haurra eta haren burasoak errezibituko dituen langile erreferentea.

Ondotik egokitze-egitaraua finkatuko dute erreferenteak eta familiak, denen egitarauen arabera eta haurraren egokitzearen arabera.

Topaketa hori biziki garrantzitsua da, eta konfiantzazko harreman baten eraikitzea du xede, burasoen eta haurraren bereiztea erraztuko baitu.

b) Langile erreferentea, bere eginkizuna

Langile erreferenteak haurrari eta haren familiari harrera egingen die eta egokitze-denboran lagunduko ditu, haurra taldeko langileekin etxekotu arte.

Alabaina, erreferentearen eginkizuna haurraren, burasoen eta lantaldearen arteko harremana erraztea da.

Haurra ingurumen berriari etxekotua izanen delarik, lantaldea du erreferente gisan ukanen, eta lantaldeko langile bakoitzak du burasoekin harremana ukaiten ahalko haurraz hitz egiteko: haren biziaz taldean, haren garapenaz, jabekuntzez.

c) Egokitze-aldia

Helburuak

- Elkar ezagutzea: haurrak, burasoak, langileak.
- Konfiantzazko harreman baten eraikitzea.

Lehen hitzordua memento garrantzitsua da, eta horren bidez burasoek eta haurrak langileen, beste haurren eta lekuaren ezagutza egiten ahalko dute. Haurraren taldean iraganen da.

Burasoek haien haurra handituko den ingurumena ezagutuko dute.

Langile erreferenteak haurraz arduratzeko beharrezkoak diren informazioak bilduko ditu, haren beharrei manera egokian ihardesteko gisan (loa, jan-edanak, erritmoak, jabekuntzak...). Burasoekin trukatu du eta haien galderei ihardetsiko. Entzunen ditu, lasaituko, eta beharrez, kontseilatuko. Elkarrekin egokitze-egitarau bat finkatuko dute. Hobe da haurraren anai-arrebak ez hor izatea egokitze-aldian.

Egokitzea aste batez gutienez iraganen da.

Egokitze-aldia apurka emendatuko da eta haurraren adinaren arabera izanen da, bai eta bere jokamoldearen arabera eta burasoek bereizketa lasaiki bizitzeko beharko duten denboraren arabera.

Proposamena:

- 1. eguna: haurra eta burasoak oren erdi bat eta oren baten artean errezibituko dira.
- 2. eguna: burasoarekin trukatu ondoan, haurra 30 bat minutuz egonen da taldean burasorik gabe
Burasoak bere haurrari erranen dio badoala eta berriz jinen dela.
Haurrak anitz negar egiten baldin badu, burasoa deituko dugu.
- 3. eguna: haurra oren batez egonen da taldean
- 4. eguna: haurra 2 orenez egonen da, eta jokoetan ere ari izanen da
- 5. eguna: haurra 3 orenez egonen da, apairu bat ere egingen du edo loaldia
- 6. eguna: haurra 4 orenez egonen da, eta apairu bat eta loaldia egingen ditu
- 7. eguna: prest baldin bada, haurrak egun labur bat iraganen du hartzaindegian (10:00-16:00).

Harrera-denborak apurka emendatuko dira, haurraren egokitzeko gaitasunen arabera.

Garrantzitsua da haurrak eguneko memento garrantzitsuak bizitzea eta konfiantzan izan dadin eta segurean senti dadin.

Egokitze-aldian bildu dituen informazioak eta oharrak emanen dizkio langile erreferenteak lantaldeari.

Hurtzaindegian sartuko den ondoko egunetan, langile erreferenteak beste langileak lagunduko ditu haurraz arduratzeko, afekzio-segurtasuna emanaz eta bere beharrei kasu egiten denetz kasu eginez. Bitartekari izanen da.

Egokitze-aldi bat iraganen da niniak arteko-handien taldera pasatzeko mementoan, langileek lagundurik.

Haur bakoitzarentzat bilakaera-jarraipen fitxa bat sortuko da.

II. EGUNA NOLA IRAGATEN DEN

a) Goizeko harrera eta arratsean berriz elkartzea

Helburuak:

- Burasoek eta haurrak goizeko bereizketa eta arratseko elkartzea, ahal bezain lasaiki biziitzea,
- Harreman bat plantan ezartzea egun guzietako trukaketen bidez,
- Haurrari erreferentzia markak atzemateko ahala ematea.

Haur guziak ninien lekuan errezibituak dira 07:30etik 08:30era

Harrera bizitokiaren sartzean egiten da 08:30etik goiti.

Langileak ingurumen erakargarri eta goxo bat sortua ukanen du jokoguneen bidez.

Haurrari eta haren burasoari harrera eginen die haiengana joanez, eta bereizketa lagunduko du soari, hitzari eta jostuei esker eta bihotz ona erakutsiz. Haurraren eta burasoaren entzuteko prest izanen da, eta bereiztea zaila dela kontuan hartuko du.

Haurraz arduratzeko beharrezkoak diren informazioak bilduko ditu eta transmisio-karpetan idatziko.

Haurrak bere burasoa agurtuko du eta taldearengana eta jokoen gainera joanen da.

Transmisioak haurraren jarraipena egiteko informazio garrantzitsuak dira egunaren jarraikitasuna egiteko gisan.

Goizean burasoak eman informazioak bilduko dira eta transmisio-karpetan idatziko.

Haurraren ardura duten langileek karpeta horri so eginen diote eta eguneko oharrak idatziko dituzte loari, apairuei, artei, aldatzeei eta jokabideei buruz.

Arratseko elkartzearen kariatara, informazioak transmitituko dira burasoari. Langileak burasoari loaldien, apairuko tenoreen, menuaren, ttipien aldaztearen berri emanen dio, bai eta eguneko anekdoten berri.

Handienei dagokienez, eguneko memento garrantzitsuen berri emanen da, jardueren berri, eta haurraren parte hartzearen eta bere erantzunaren berri.

Transmisio denbora trukaketa memento bat da burasoaren eta langilearen artean. Elkarrenganako konfiantzaren eta elkar aditzearen bidez harremana plantan ezartzen da.

Jarraipen-dosier bat eginen da haur bakoitzarentzat, eta haren bilakaera, erritmoa, eta jaki berrien sartzea idatziko dira. Erregularoki eguneratuko da. Langile guziek apairuen taula bat eskura dezakete.

Haurrak haurtzaindegia utziko du eta bere aita edo ama berriz atzemanen. Langile bat burasoarengana joanen da, haurraren eguna kontatuko dio objektibotasunez: haurrak jardueretan ukan duen

jokabidearen berri emanen dio, beste hurrekin dituen harremanen berri, eta eguneko anekdoten berri.

Memento horietan, burasoarekin dituen harremani esker langileak haurra eta haren ingurumena hobeki ezagutuko ditu.

Transmisioak laburrak eta zaluak izan daitezke, buraso guziak errezibitu ahal izateko gisan.

Haurren lasaitasuna eta segurtasuna zaintzeko gisan eta kalitatezko transmisio bat egiteko gisan, haurraren bila datorren heldua baizik ez da sartuko gelara. Ahalaz eta haurraren adinaren arabera, anai-arreba zaharragoak ez dira hartzaindegian sartuko.

Arratseko antolaketa ttipien xokoan:

Egun bukaeran, hurrek langileak lagunduko dituzte jostailuak eta gelak altxatzen.

Oraino hor diren hurrak joko-gela nagusian bilduko ditu langile batek. Jarduera bat proposatuko du: ahalaz musika entzutea edo heziketa-joko bat egitea.

Haren lankidea burasoen errezibitzeko libro da eta transmisioak egingen ditu. Ez du egiten ari diren jarduera tratatuko, eta haurraren bila etorriko da haren burasoarengana laguntzeko.

Arratseko antolaketa arteko-handien xokoan:

Arratsaldeko askaria gabe, hurrei jostailuak altxatzea galdeginen zaie. Langileek lagunduko dituzte sailkatzen eta gauza bakoitzaren lekua atzematen eta izendatzen.

Arratsaldeko askariaren ondotik, bi talde egingen dira bi bizi-geletan edo lorategian.

Bizi-gela bakoitzean langile batek egun bukaera horren jarraipena bermatuko du eta heziketa-jokoak proposatuko ditu. Hirugarren lankide batek haurren abiatzea kudeatuko du, burasoarengana joanen da haurrarekin eta haren puskekin. Bi lekuen eta burasoen arteko lotura egingen du, bere lankideak taldearekin egon daitezen.

Hurrek jostatzen segi dezakete partitzeek eta buraso/langileen trukaketek tratatu gabe. Berant partitzen diren hurrak ahalaz aldagelaren ondoan den bizi-gelan egonen dira.

b) Higiene-artak, ninien aldatzea, garbitasunaren jabekuntza

Helburuak:

- Haurraren ongizatea, erosotasuna eta segurtasuna zaintzea,
- Bakoitzarekin harreman pribilegiatu bat sortzea,
- Norberak bere gorputzaren ezagutzea,
- Autonomia eskuratzea.

Xatarrak aldatzea arta memento bat da, eta memento horretan haurra bakarrik da helduarekin, harreman pribilegiatu batean. Aldatze denboran haurra segurean sentitu behar da. Eta denari kasu eginen da horretarako: erritmoari, langilearen jեսtuei, hunkimenari, bozaren tonuari.

Langileen hitzak eta presentzia biziki garrantzitsuak dira.

Haurrei artak goxoki eta lasaiki emanen dira, haur bakoitzaren usaiak kontuan hartuz.

Xatarrak aldatzen diren mementoa komunikazio mementoa da, haur bakoitzarekin egiten den trukitzea, eta ongizate eta plazer mementoa bai haurarentzat bai helduarentzat. Haurrak bere gorputza ezagutzeko mementoa ere da. Helduak gorputzaren parteak izenda ditzake, eta haurrak errepika, edo bakarrik izenda.

Langileak haurra sustatuko du aktiboki parte har dezan.

Hautzaindegiko materialak autonomiaren jabekuntza laguntzen du: aldagela bizi-lekuaren ondoan da, troxamahaira igateko eskailerak badira, kutxatilik haurren heinean dira haien jantziak altxatzeko gisan. Langileak haurra biluzten lagunduko du, bakarrik egiten heltzen den arte. Haurrak bere puskak bere kutxatilan altxatuko ditu, edo beharrez, helduak lagunduko du.

Garbitasunaren jabekuntza haurraren heltze fisiologikoa eta psikikoa kontuan hartuz lagunduko da. Langileak burasoekin harremanetan ari dira lanean, etxean gertatzen denarekin jarraitasuna emanaz.

Langileak haurraren galdeei ihardetsiko die, ikasketa horrentzat interesa erakusten duen ber. Sustatuko du eta haren aitzinamenduen balioa agerian emanen.

Garbitasunaren ikasketa hastapenean, haurrak egunez ez duelarik gehiago xatarrik, aldagarriak behar dira ekarri.

Pixontzira edo komun ttipietara joatea proposatuko zaie xatarrak dituzten haurrak aldatzeko mementoan, eta egun guzian zehar xatarrik gehiago ez duten haurrei. Ez da sekula haur bat behartuko ez baldin badu gogorik edo ez baldin bada prest.

Langileak haurraren intimitatea zainduko du.

c) **Apairuak**

Helburuak:

- Elikadura orekatua proposatzea,
- Janariak eta gustu desberdinak ezagutzea,
- Garapen sentsoriala laguntzea,
- Sozializatzen laguntzea,
- Autonomiaren garapenaren laguntzea.

Menuak zuzendariarekin, erizainarekin eta sukaldariarekin elkarlanean finkatuak dira. Sukaldariak ditu apairuak prestatzen.

Bazkari edo arratsaldeko askari denbora memento atsegina da, eta trukaketa eta plazer mementoa. Jateko plazeraren eta haurraren sortzen den harremanaren artean den lotura kontuan hartzen du langileak. Langileak beti libro izanen dira eta haur bakoitzaren entzuteko prest. Giro lasaia segurtatuko du, haurrari eztiki mintzatuz, eta haurrak ere berdin egitera sustatuz.

Emeki-emeki haurrak arauak errespetatzera ekarriko dira, haien adinaren eta heldutasunaren arabera: apairu denboran jarririk egotea, mahaikoak erabiltzea, apairuak aitzin eta ondotik eskuak garbitzea.

Jakiak haurrei aurkeztuko dira eta janariak izendatuko. Janarien irudiak ere erabiliko dira.

Langileak haur bakoitzaren bilakaerari kasu eginen dio: oraino puskak jaten ez dituen haur bati purea proposatzen ahalko dio. Jan nahi ez duen haur bat ez da sekula horretara behartuko, baina dastatzera akuilatuko da. Haurrak sistematikoki jatea errefusatzeko baldin bada burasoekin aipatuko da bai eta lantaldean, jarrera egokia zein den finkatzeko.

Ttipien xokoko antolaketa:

Langileek haur bakoitzaren erritmoa errespetatzen dute.

Biberoiak galdearen arabera emanen dira, bai eta burasoen informazioen arabera.

Bazkari dibertsifikatuak 11:00etan hasten dira. Elikaduraren aniztea etxean hasiko da, eta ondotik haurtzaindegiak jarraipena segurtatuko du. Dibertsifikazio hastapenean ez da janari berririk emanen ez baldin bada oraino familian emana izan.

Langileek apairu-denbora antolatzen dute bakoitzaren eginkizunak finkatuz. Behar den material guziaz prest ezarriko dute ez mugitzeko eta haurren ondoan egoteko: orgatxoa, apairua, garbiontzi ttipiak, ahozapiak, ura, basoak, mahaikoak...

Langileak berotu duen janariaren temperaturari kasu eginen dio zerbitzatu aitzin.

Koilaratik jaten duten haurrak biberoteia duen bizi-gelako etzaulkietan ezarriko dira (gela urdina). Handiago diren haurrak kadiretan jarriko dira, bazkariatzat antolatua den gelako mahai inguruan. Langileak elder-oihala ezarriko die, platera emanen eta jatera emanen die edo bakarrik jaten hasten direlarik, lagunduko ditu. Haurrek erhiak erabiltzea onartuko du langileak, edo koilara ttipiarekin jan dezaten. Emeki-emeki puskak ere emanen zaizkie. Haurrak handiago eta autonomia gehiago ukanen dute, eta mahaietan ezartzen ahalko dira hiruzpalau hurreko talde ttipitan, langile batek lagundurik. Bakarrik janen dute, edo nahi izanez geroz, lagundurik.

Langile batek oraino jan ez duten haurrak joko-gelan (gela horia) bilduko ditu. Bazkariaren beha egotean jokoak proposatuko dizkie, eta bazkaria bukatu duten hurrei harrera eginen die. Giro lasaia atxikiko du, haren lankideek epeka egiten diren bazkariak segurtatzen dituzten artean.

Arteko-handien xokoko antolaketa

Bazkariak bi zerbitzutan iragaten dira (11:00etan eta 11:45ean), haur talde ttipitan, mementoa lasaia izan dadin bai eta trukatzeko parada. Arratsaldeko askaria 15:30 irian eginen da.

Langileek hitzez adieraziko dute haurrek eginen dutena, eta toki eta denbora aldaketan berri emanen diete. Bazkaldu aitzin haurrek eskuak garbituko dituzte konketan eta ahozapia jantziko dute. Kantu eta irakurketa memento bat antolatuko da giroa lasaitzeko gisan eta gela batetik bestera iragateko gisan.

♪ Jatera, jatera, ♪ handiak eta ttipiak
♪ jatera, jatera, ♪ egizue bazkari!
♪ Milesker!

Langile batek ardura duen 6 hurreko taldea jangelara lagunduko du eta mahai inguruan jartzen lagunduko ditu. Haren langileak bere 6 hurreko taldearekin segituko du, eta beste mahaietan instalatuko dira. Haurrek beren lekua hautatuko dute.

Sukaldariak orgatxoak ekartzen du janariarekin, urarekin, beharrezko baxerekin, garbiontzi ttipi batekin baxera zikinen ezartzeko... Hots, dena prest izanen da joan-etorriak mugatzeko. Heldua haurren heinean jarriko da, aulkitxo ergonomiko baten gainean. Janaria erakutsiko da, moztuko eta zerbitzatuko.

Langile bakoitza bere taldeaz arduratuko da, arauak oroitaraziko ditu eta bazkaria ongi iragaten dela bermatuko du. Haur bakoitzari kasu eginen dio, eta haien arteko komunikazioa erraztuko du. Langileak badaki bazkaria ongi iragan behar dela haurrak ongi lokartzeko eta loaldi on baten egiteko gisan.

Bazkaria bukatu ondoren, aurpegia eta eskuak garbi-oihal batekin garbitu ondoren, talde ttipi bakoitza bere bizi-gelara itzuliko da, oihu eta

laster egin gabe. Haurrak komunetara joaten ahalko dira eta eskuak garbitzen ahalko dituzte.

Mahaian jarririk egon ondoan, haurrek memento ttipi bat ukanen dute bizi-gelan mugitzeko gisan, aldatu aitzin eta memento lasaia aitzin.

d) Loa

Helburuak

- Haurraren garapen eta oreka fisikoa eta psikikoa laguntzea,
- Beharrezko pausa memento eskaintzea,
- Lasaitasunean lo egiteko edo lasaitzeko ahala ematea,
- Autonomiaren garapenaren laguntzea.

Haurrak loa beharrezkoa du, indarberritzen du. Loaldiari esker haurrak lo egiten ahalko du berreskuratzeko, edo pausa memento bat ukaiten ahalko du lasaitasunean.

Haur bakoitzaren lo-erritmoa errespetatuko da, oheratzeak eta iratzartzeak epeka eginen dira. Lo dagoen haur bat ez da iratzarriko. Burasoa haurraren bila heldu denean lo baldin bada, berantago berriz jiten ahalko da, edo berak iratzarri. (Posible baldin bada eta burasoak nahi izanez gero, berantago etor daiteke; orenaren gainditzea fakturatuko da).

Bazkariaren eta loaldiaren arteko trantsizio-denbora memento garrantzitsua da, eta haurra lasai izan behar da lo-gunera joateko. Segurean sentitu behar da, eta konfiantzazko giroan.

Arteko-handien xokoan erritual bat proposatuko da –istorio baten irakurtzea edo musika goxo baten entzutea–, giroa lasaitzeko eta haurrak errazki lokartzeko. Langileak logeletan egonen dira eta behar balitz, haurrak jabalduko dituzte.

Ttipien xokoko antolaketa

Ninien xokoan sei nini-oheko bi logela badira, bizi-gelatik hurbil. Logeletako leihoak hetsiko dira argi pixka bat pasatzera utziz, haurrak ez ilunpean izateko gisan.

Haurrak lo-seinaleak erakusten hasten direlarik etzanen dira, bakoitzaren erritmoa errespetatuz eta burasoek eman informazioak kontuan hartuz. Jarraipena izan dadin, haurra aldatzen duen langileak du ohean ezarriko. Lo-zakutxoan ezarriko du, haren ñuñua eta ttuttua emanen dizkio. Bakoitzarekin harreman baten sortzeko denbora hartuko du, goxoa izanen da harekin eta etzanen duela adieraziko dio. Haurraren lokartzeko usaiak kontuan hartuko ditu: haurraren ondoan egonen da, burua ferekatuko dio, kulunkatuko du...

Haur batzuk logela batean lo daudelarik, bat ez baldin bada lokartzen heltzen eta negarrez ari baldin bada, etzaulki batean edo oheño berezi batean etzanen da, lasaitasunean.

Goratuak izan behar duten haurrentzat matalaza maldan ezarriko da. Ttipientzat, moldezko mihisearen azpian niniak kokatzeko zerbait ezarriko da.

Logelak etengabean zainduak izanen dira, langileak erregulariki etorriko baitira haurren ikustera. Logela bakoitzean babyphone bat ezarriko da.

Bazkariaren ondotik, haur gehienak ohean izanen direlarik, lo egiteko tenorea ez duten haurrak “motrizitate” gelan (gela horia) jostatuko dira, logeletatik urrun, beste haurren ez iratzartzeko.

Arteko-handien xokoko antolaketa

Oheratzea

Bi logela badira ohakoekin eta ohe apalekin haur ttipientzat. Handientzat beste bi logela badira kanpatzeko oheekin, haurrak bakarrik jaikitze gisan.

Goizik oheratua izateko beharra duten haurrak 12:30 irian oheratuko dira, 2. taldeko hurrek bazkaltzea finitzen dutelarik, eta azken horiek 13:00ak irian etzanen dira.

Antolaketa horri esker haur talde ttipiak epeka joanen dira ohera, eta giro lasaia atxikiko da.

Bazkariaren ondotik, haurrak libreki jostatuko dira beren bizi-gelan.

Langileak haurra lagunduko eta sustatuko du haren ikasketetan: autonomia, garbitasuna.

Talde ttipika, haurrak biluziko dira eta beren puskak kutxatiletan altxatuko dituzte. Komunetara joanen dira edo xatakkak dituztenak aldatuko dira.

Gela erdi ilunpean ezarriko da, hurrek beren ñuñua hartuko dute eta langile batek istorioak kontatuko ditu. Istorioa entzuteko denbora haur batetik bestera kanbiatzen da, langile batek haurrak banaka etzanen ditu edo bizpahirunaka, haren lankideak istorioak kontatzen segitzen duen artean. Langilea segurtasun emailea izanen da bere jestuen eta hitzen bidez. Haurra lasaituko du, eta jakinaraziko dio langilea ere logelan geldituko dela. Ateak erdi irekirik utziko ditu, beharrez, sartzeko gisan, eta haurrak bakarrik jaikitze gisan.

Haurrak haien lo behararen eta erritmoaren arabera lokartuko dira. Lokartzeko zailtasunak dituzten haurrentzat biziki presente izanen da langilea, haurrari oroitaraziz loaldiaren eta pausatze gisa mementoa dela. Leihoak ez dira arras hetsiak izanen, eta argi pixka bat pasatzera utziko dute haurrak ongi desberdintzeko gisan.

Gerta daiteke haur bat ezin lokartuz egotea, eta bizi-gelara pausatzea proposatuko zaio, lasaitasunean, tapiza baten gainean. Ametsen gela erabil daiteke logelari berriz usatu behar den haurarentzat. Horrela, molde pribilegiatuan lagun daiteke, haren kideen loa tratatu gabe.

Loalditik jaikitzea

Langileek haurrak errezibituko dituzte, loalditik jaikitzen diren arau. Beharrezkoa da haurrari ezteki iratzartzeko denbora uztea, langile batekin harreman pribilegiatu bat ukaitea goxa-goxa eginez, etab. ... Aldi bat iratzarri ondoan, haurra komunitara joanen da, jantziko da eta jokoetan ariko. Langile bat bizi-gelan egonen da eta jarduerak proposatuko ditu. Ametsen gelan bizpahiru haur sar daitezke liburuak irakurtzeko, haur batzuek puzzleak egin ditzakete eta beste talde ttipi bat lego edo duploekin jostatu.

e) Jokoak eta jarduerak

Helburuak

- Haurrari bere buruaren eraikitze eta loratzeko ahala ematea,
- Haien emozioak, barneko arrangurak, gogoetak adierazteko ahala ematea (joko sinbolikoak),
- Aurkikuntza eta esperimenez laguntzea,
- Irudimena eta sorkuntza garatzeko ahala ematea,
- Nork bere buruaren baitako konfiantza, autonomia eta sozializazioa garatzea,
- Zentzuen garapena eta motrizitatea laguntzea.

Josteta beharrezkoa da haurra behar bezala garatzeko. Haurrak bere burua jostatuz eraikitzen du. Joko libreek, bakarka eta taldeka, denek irudimena, sormena, hizkuntza eta sozializazioa garatzen laguntzen dute. Jarduera bat baino gehiago proposatuko da haurrei, baina ez dira sekula inposatuko. Josteta plazera gelditu behar da. Haurrak esploratuz ikasten du, eta esperientziak biderkatuz.

Langileak bere presentziaren eta begiradaren bidez haurra sostengatzen du eta laguntzen haren esperimenez.

Gelak antolatuak dira haurren garapena laguntzeko gisan fase guzietan.

Kanboko liburutegiko liburuak proposatuak dira haurrei, eta erregularri berrituak.

Partaidetza bat bada Arrangoitzeko ama-eskolarekin eta zahar-etxearekin: egun erdiak antolatzen dira eskolarekin eta belaunaldien arteko proiektu bat zahar-etxearekin.

Hautzaindegia labelizatzearen kariatara, euskara ikasten ari diren langileek euskara erabiltzen dute haurrei mintzatzeko.

Ttipien xokoa

Ninien xokoan bizi-gela bat bada, hiru gunetan banatua.

Langileek guneak erabiltzen dituzte haurren beharren arabera. Niniek iraunkortasun beharra dute, tapiza, jostailu berak atzematea gustuko dute. Zenbait jostailuren bidez (ez gehiegi), esplora dezake eta esperientziak egin. Haur ttipi-ttipi batek objektu bati behatzen dio, hunkitzen du, ahoan hartzen, berriz so egiten, pausatzen eta berriz hartzen. Jostailua jendeekin harremanetan sartzeko objektua da, helduaren eta niniaren artean bitarteko da.

Ninia ez da itzultzen	Ninia itzultzen da eta herrestan ibiltzen da
<p><u>Antolaketa:</u> joko-tapizak, etzaulkiak</p> <p>Ninien eskuko ezarriak diren jostailuak: mugikariak, zintzilikatzeak, ernatze-barandak; ehunezko edo plastiko guriz egin jostailu arinak</p> <p>ahora ekartzeko gisan eta errazki eskukatzeko gisan.</p>	<p><u>Antolaketa:</u> joko-tapiza</p> <p>Itzultzean miraila ikusiko du</p> <p>Objektu berak niniaren eskuko ezarriko dira; harrapatzera entseatuko da.</p> <p>Ninia beste hurrekin elkarrekintzan hasten da. Helduari zehazkiago so egiten dio, eta haren arreta erakartzen du.</p>
Ninia jartzen da, herrestan ibiltzen da eta lau pataka ere	Ninia altxatzen da eta ibiltzen
<p><u>Antolaketa:</u> kanpora buruz ematen duten leiho apalak, ikusteko eta ikusiak izateko gisan; tapizak, ukipen-taula, pilota-igerilekua, igateko psikomotrizitate-elementua.</p> <p><u>Jostailuak:</u> ahokatzekoak, metatzekoak, betetzekoak, hustekoak; pilotak, baloiak, ukipen-jokoak, auto ttipiak, animaliak...</p> <p>Motor-ibilbideak, jarduera sensorialak ekai mota desberdinak ezagutzeko eta esperimentatzeko gisan: gogorra, guria, leuna, hotza. .., josteta-kantuak, erhi-jokoak.</p>	<p><u>Antolaketa:</u> hupatzeko hesiak, tunela, tapiza, kuxinak, ehunezko liburuak.</p> <p><u>Jostailuak:</u> gainean ibiltzekoak, errotadunak, lehen puzzleak (+ jadanik aipatu jostailuak).</p> <p>Haurra handitzen baita, haren garapena, gaitasunak eta interesak kontuan hartuko dira lehen aurkikuntzen egiteko jarduerak proposatuz: tindua, xehatzea, kolatzea...</p>
<p><u>Helduaren jarrera:</u> langileak haurrari bihotz onez behatuko dio, eta eginen dituen esplorazioetan sostengatuko du.</p> <p>Haurrarekiko komunikazioa lagunduko du, kontaktu fisikoaren, soaren eta bozaren bidez.</p> <p>Haurrarekin delarik arrunt presente da.</p> <p>Langileak haurraren jokia partekatuko du, motor-jokoak proposatuko ditu, joko sensorialak eta ludikoak haurraren gaitasunei egokituak.</p>	

Arteko-handien xokoa

Arteko-handien taldeak bi bizi-gela baditu:

Lehen gelan badira:

- Panpinak
- Tapizak joko libroekin
- Leku lasai bat tapiza batekin (istorioak, josteta-kantuak, lasaitzea, legoak, kapla...)
- Mahai bat, haurrek marrazteko eta puzzleak egiteko gisan
- Murru imandu bat eta arbel beltz bat

Bigarren gela joko sinbolikoekin eta imitazio-jokoekin antolatua da: jostetako ontzi-zerbitzua eta panpinak, etxaldea, garajea eta autoak.

Bi geletan leku lasai bat bada eta mahai eta kadirak jarduera zuzenduentzat, leria bat.

Beste gela batzuk ere badira, funtzioak ongi mugatuak dituztenak, eta talde ttipitan erabiltzen direnak.

- amets-gela bat, atsedendialdiarentzat, irakurtzeko, josteta-kantuentzat, musika entzuteko...
- jarduera-gela bat tinduarentzat, *collage*ak egiteko, hazien eskukatzekeo...

Egun guzian zehar, eta behin baino gehiagotan, haurrek joko libre eta sinbolikoak egiteko mementoak aurkituko dituzte, edo jarduerak talde ttipitan, helduek zaindurik.

Kanpoko lekua hiru gunetan zatitua da:

Ttipien gunea aterpearen azpian, zola malguarekin.

Handien lorategia joko-egitura batekin eta baratze ttipi batekin.

Hirugarren gunearen antolatzen ari gara.

Jardueren antolaketa:

09:00ak irian kantu, josteta-kantu edo istorio memento bat proposatuko da haurrei, eta 09:30 irian jarduerak hasiko dira taldeka.

Jarduerak hasi aitzin haurrei baso bat ur proposatuko zaie. Egun guzian zehar talde ttipietan egotea pribilegiatuko da, giro lasaia atxikitzekeo gisan. Horri esker hurrez indibidualki arduratzen ahalko da, haiei hobeki behatzen ahalko zaie, eta bakoitza hobeki entzuten ahalko da.

Arteko-handien xokoko langileek haurrak 8ko taldeetan banatuko dituzte eta jarduerak antolatuko. Zenbait haur joko libroetan aritzen ahalko dira horretarako den gunean. Haurrak interesa dueno iraunen du jarduerak. Nahi bezainbat aldiz egin, berriz egin, desegin, berriz egin ahal izan behar du haurrak, langilearen begi erneen pean.

Taldeak aldizka jarduera zuzendu eta libreetan ariko dira. Haurrek jardueraz alda dezakete. Proposatuko den jarduera izendatuko da, eta

haurren adinaren eta galdearen araberakoa izanen da, eta zenbaitetan gai baten inguruan (gustuaren astea, Eguberri, musikaren besta...)

Haurra jostetan laguntzen duten langileen jarrera:

Langileak, bere presentzia eta begiradaren bidez, haurra sostengatuko du bere esplorazio eta jabekuntzetan. Haurraren laguntzea eta hari behatzea garrantzitsua dela badaki. Haurrak, helduaren begi erneen pean, luzaz jostatzen ahal dira eta esperientzia franko egin dezakete.

Heziketa taldeak zainduko du jokoetan aritzean plazera badutela hurrek, gauza berriak ezagutzen dituztela, produktibitate noziorik gabe.

- Ez dute haurra ordezkatzeko esku-hartzaile izanez.
- Langileek kasu eginen dute non kokatzen diren eta gauzak zer erritmotan egiten dituzten, haien joan-etorriek, hitzek eta postuak haurren jokamoldearen gainean eragina baitute. (Heldua lasaia baldin bada, haurren artean josteta ari baldin bada, haurrak sekula jostatzera behartu gabe, orduan segurtasun afektibo bat eskainiko die hurrei).
- Heldua haurren heinean ezarriko da, erakutsiko die hor dela, bihotz onez, eta gauza frankotarako parada emanen die.

Biltzearen lekua jostetan:

Jarduera bakoitzaren ondotik, hurrei gauzen biltzea galdatuko die langileek. Lagunduko dituzte gauzen tokien atzematen eta jokoak eta jostailuak biltzen.

Biltzea ere ludikoa da, eta horri esker berriz jostatzen ahalko da. Langileek ingurumena zainduko dute ez dadin objektuz bete izan, haurra hartan galduko bailiteke eta ez luke beste haur batekin edo heldu batekin zerbait partekatzen ahalko.

Hurrek "imitazio-joko" xokoa errespetatuko dute, xoko bakoitzak bere funtzioa baitu. Jostetako ontzi zerbitzua sukaldean izanen da, auto ttipiak garajeen...

Egun bukaeran, bizi-gela bildu ondoan, heziketa-joko bat liburuak proposatuko zaizkie hurrei. Horrela lasaiki egonen dira burasoaren zain. Langileak haurra jokoaren bukatzera utziko du, biltzera eta burasoarengana joatera.

Jarduerak eta jokoak:

- Heziketa-jokoak: puzzleak, eraikuntza-jokoak, ahokatze-jokoak, lotoa, perlak harian sartzea
- Eskukatzeko jokoak: moldatzeko oreka, gatz-oreka
- Eskukatzeta eta ura, irina, haziak, etab. ontziz aldatzea
- Ur-jokoak
- Arte plastikoak: tindua, *collagea*, xehatzea, pikatzea
- Psikomotor-ibilbideak, dantzak eta ingurutxoak, gimnastika
- Kozinatzea: pastizak
- Mozorrotzea
- Zentzu eta musika ernatzea: musikaren entzutea, kantuak, josteta-kantuak, soinu-esplorazioa
- Txotxongiloak

- Leriak

Jarduerak aire librean:

- Bizikletak
- Baloiak
- Gimnastika
- Motor-ibilbideak
- Kleraz markatu ibilbideak
- Lasterketak
- Altxor-ihizia edo objektu kukutuaren bilatzea
- Birlak
- Masakre-jokoa
- Ur-jokoak
- Ingurutxoak
- Baratzezaintza
- Ahate-arrantza

Lorategian, langile bakoitza bere taldeaz arduratuko da presente izanez eta haurren beharrak entzunez. Haurren segurtasun fisiko eta afektiboaren ardura badu.

Langileek haurrak lagunduko dituzte espazioaren eta naturaren ezagutzen. Erakutsiko die nola bizikletak erabil, nola txirristara igan eta lerratu. Haien ezagutzetan parte hartuko dute langileek, jokoak proposatuko dituzte, baina badakite haurra bakarrik egitera eta imajinatzeraz uzten.